



Laudioko EAJko Udal Taldea

AURREKONTUETARAKO LAUDIOKO EAJ-PNV-ren EKARPENAK:

-2017. URTEKO AURREKONTUAK-

Hurrengo honetan aipatzen diren asko, 2016 ekitaldiko aurrekontu akordioaren jarraipen bileratan eta EAJ-PNV eta EH Bilduren arteko aldez aurreko aldebiko batzarretan landu izan dira eta Sail bakoitzeko Zinegotziak 17/03/16ko Batzordean aurkeztu izan ditu 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektuan txertatu edo eta Altxortegiko soberakinerako txertatze bitartez Aurrekontuan erantsi dira:

KULTURA, KIROL ETA JAI SAILA: Kultura/Kirol taldeentzako diru-laguntzen kontu-saila: Bina kontu:

a. 2016an adostutako hazkundearen ostein: 2017ko ekitaldirako, diru laguntzak bere horretan mantendu edo izoztea.

b. **Konkurrentzia lehiakorraren Oinarrien berrikuspena.** Egungo suposizioen azterzea, oinarriak aldatzea eta ahal den kasuetan, dirulaguntza nominatiborako konkurrentzia askeko zenbait diru laguntzak aldatzea, Saileko Batzordeetan (Auzoetako Jaiak, Herrialdetako Zentroak, zentro-arteak edo Herrialdetako Jaialdia eta flamenko ikuskizuna, etab.) planteatu zen bezala.

- **GIZARTE ONGIZATE SAILA:** GLL eta Laguntzen Udal Programaren kontu-sailak handitzea. Menpekotasunen Udal Planean 2017rako aurreikusitako helburu era ekintzak martxan jartzeko eta betetzeko aurrekontu-saila erreserbatzea.
- **UDALTZAINGOA:** Baldintza egokienetan, funtzioen katalogoan bildutako eginbeharrak betetzeko beharrezkoak diren baliabideez doitzea.
ERREMINTAK: Arropa erosteko kontu-saila (uniformea berritzeko). Irrati eta talkyak erostea (TETRA).
- **ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMAK:** Beste instituzioen ekintzen testuinguruan langabetuak kontratatzea. SARTUrekin berein biziko hitzarmenak sinatzea eta enpleguratzeko zaila dituzten kolektibo berriak aintzat hartzea.
Enplegu- formakuntza programarentzako diru-laguntzak: Nerbioi Ibaia garbitzea eta beste batzuk.
- **HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA SAILA:** Berdintasun Planean eta Gazte Planean 2017rako aurreikusitako helburu eta ekintzak martxan jarri eta betetzeko aurrekontua erreserbatzea.



Laudioko EAJko Udal Taldea

INBERTSIO SAILAK:

- **HERRIGUNEA ASFALTATZEA:** aurrekontu-erreserbekin eta urte askotako aurrekontu-kontu sailtako gastuaren egikaritzearekin jarraitzea. Asfaltatzea behar duten zonaldeak arakatzea.
- **NEKAZAL EREMUETAKO ASFALTATZE LANAK:** aurrekontu-erreserbekin eta urte askotako aurrekontu-kontu sailtako gastuaren egikaritzearekin jarraitzea. Asfaltatzea behar duten zonaldeak arakatzea.
- **ARGITERI PUBLIKOA:** aurrekontu-erreserbekin eta urte askotako aurrekontu-kontu sailtako gastuaren egikaritzearekin jarraitzea. Argiteri publikoa behar duten zonaldeak arakatzea.
- **INBERTSIOAK AUZOETAN. Inbertsioen BANAKAPENA:**
 - **AUZOKIDEEN ESKAEREN AURREPROIEKTUAN AINTZAT HARTZEA:** Auzo Asanbladen aktak eta Auzotarren inkestean emaitzak berrikustea, aurrekontu partehartzaileei dagokionez. Horietako batzuk aintzat hartu izan dira.

ARRAÑO: Ingurua eta Arrañoako Gaztelua berreskuratzeko AUZOLANen lanekin laguntzen jarraitzea. TXERTATUA.

GARDEA: Ingurua eta Santa Krutzeko Baseliza berreskuratzeko AUZOLANen lanekin laguntzen jarraitzea. TXERTATUA

BESTE BATZUK: TXAKURRENTZAKO AISIALDI GUNEAK herrigunean egokitzeko Udalbatzan adostutako mozioa betetzea. Ildo honetan, 17/03/22an erregistratutako auzo eskaera bat bada: 2017 urte honetan, gai hau berriz ere jorratzea ezinbestekotzat jotzen dugu baita esperientzia pilotu bat gauzatzeko kontu-sail bat erreserbatzea ere. Amurrion, alboko udalerrian urte askotariko pitinkako inbertsioak egin beharko litzateke. Aurrekontu sail bat txerta dadila eskatzen dugu.

- **HERRIGUNEA:** Zubiko Kuraxo: Zubiko Kuraxoko kalearen urbanizazio lanen eta bertako saneamendua hobetzeko lanen III Fasea egikaritzeko aurrekontu sail nahikoa txertatzea. FORU PLANA. TXERTATUA.
- **HERRIGUNEA:** Zubiko Etxea: Finkako kanpoko aldea hobetzeko diru kopurua egikaritzeaz gain, eraikinean liburutegi eta ikasketa gela bat egokitzeko proiektua erredaktatzeko diru saila egikaritzea eskatzen dugu. Soberakinekin ordaintze aldera TXERTATUA.



Laudioko EAJko Udal Taldea

- **HERRIGUNEA:** Hornidura Plaza: **2016 URTEAN erabat BETE GABE.** 2016ko diru sail honen zati baten egikaritzera ekin zaio, I Fasea: garai bateko irolak eta biltegi tokien eraistea. Eraistearen ostean libre geldituko litzatekeen espazioa egokitu beharko litzateke (margotzea) eta horren ostean, irola mugikorra Tokio aldatu beharko litzateke. Bete ez den diru saila txerta dadila eskatzen dugu. II Fasea berehala gauza dadinerako soberakinekin ordaintze aldera.
- **HERRIGUNEA:** Zumalakarregi etorbide osoa konpontzera bideratutako Inbertsio Plana garatzea: zoladura, zerbitzuak, bidegorria, etab.
- **NEKAZAL EREMUA:** Santa Luziako Garai bateko Apaiz Etxea zaharberritzea. **2016 URTEAN erabat BETE GABE.** Eraikina taberna gisa ireki dadin eraberritze lanak egiteko eta ekipamendua eskuratzeko nahiko diru egokitzea. TXERTATUA.
- **NEKAZAL EREMUA:** Santa Luziako Plan Berezia garatzeko zenbait urteetako Inbertsio Plana egokitzea. (Udalari, Garapen, Nekazal, Mendietarako Zerbitzu edo bestelako alorretan, Aholkularitza Teknikoa eskaintzen dion enpresak erredakta dezake: AIALUR, S.L. Proposamen hauxe Plan Bereziaren beraren dokumentazioak aintzat hartzen zuen).
- **NEKAZAL EREMUA:** Udalak 2017 urterako BASOBERRITZE planarekin bukatzeko Arabako Foru Aldundiarekin lotutako konpromiso ekonomikoa bete dadila. TXERTATUA.
- **UGARTE:** Haurrentzako jolas tokia estali eta hobetzea. Aurreproiektura TXERTATUA.
- **UGARTE:** Ugarteko plazaren erabateko proiektua betetzeko aurrekontu saila. Aurreproiektura TXERTATUA. 2016rako erreserbatutako zenbatekoa soberakinekin ordaintzeko ere TXERTUA.
- **HERRIGUNEAN EGIN BEHARREKO MANTENTZE LANAK** larrialdi lanetarako: Udal langileen BRIGADAK, ahal den guztietan lan horiek bete ditzanerako diru sail orokorra sortzea: hiri-altzariak, argiteria publikoa, espaloiak, bidegorriak, hondatutako barandak aldatzea, ezabatutako bide markak margotzea, ikastetxe publikoetan mantentze lan txikiak egitea, etab.
- **INBERTSIOAK KIROL INSTALAKUNTZETAN:** Egungo diru-sail orokorrak areagotzea eta instalakuntza zehatzetarako kontu-sail bereziak eratzea.
BANAKAPENA:
 - **Granja Lamuza kiroldegia: beharrezkoak diren inbertsioak. TXERTATUA.**
 - **Ellakuriko futbol zelaia. TXERTATUA.**
 - **San Martineko futbol zelaia.** Instalakuntza honetan inbertitzen jarraitu.



Laudioko EAJko Udal Taldea

TXERTATUA.

- **Latorro:** Hiri-altzariak eta argiteriaren horniketarako eta lur-zatia hondeatzeko eta lisatzeko aurrekontu saila. Aisialdirako eremuaren eta kirol esparruaren zabaltzea, elementu berriak jarrita. TXERTA dadin eskatzen dugu.
 - **Gardeako instalakuntzak:** Tenis jokalekua estaltzea. TXERTATUA. Bi padel pisten horniketa eta ipintzea. TXERTATUA, 2016tik datorren kontu-saila.
 - **Herrigunean Frontoia egiteko proiektuaren erredakzioa.** 2016an zehar gauzatu gabe. Altxortegiko soberakinean txertatu dadila eskatzen dugu.
- **PROIEKTUAK ERREDAKTATZEKO KONTU-SAILAK: Banakapena:**
 - **Etxebarri baserria:** zaharberritze proiektua erredaktatzeko erreserbatutako diru-saila egikaritzea.
 - **Garai bateko Erroke Deuna zahar egoitzaren zaharberritzea.** 2016an erreserbatutako kontu-saila Altxortegiko soberakinean AINTZAT hartuta, proiektua gauzatu dadin, eta Aurreproiektuan, etorkizunean egin beharreko lanak betetzeko beharrezkoa den diru-saila ERANTSITA.
 - **Antzokia edo Altzarrateko Erabilera Anitzeko Aretoaren** proiektu originala aldatzeko, egokitzeko edo berdimentsionatzeko proiektua. Egiteke dago. Altxortegiko soberakinera gehi dadila eskatzen dugu.
 - **NEKAZAL EREMUETAKO SANEAMENDU proiektuak** egitea, etorkizun bateko dirulaguntzak eskuratze aldera. Esaterako: 2018-2019 Foru plana. Bulego Teknikoak, AQUALIA-ren laguntzarekin erredakta dezake.

Laudion, 2017ko martxoaren 23an

Sin.: Mainer Basterra Ibarretxe

Laudioko EAJ-PNV-ren ordezkotako bozeramailea